

UR NAHASIEN ERRAIK.

LGTB* ESPERIENTZIA ETA POLITIZAZIOAK

HEGO EUSKAL HERRIKO HERRI MUGIMENDUETAN

Tesiaren egilea: Jokin Azpiazu Carballo

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU)

Saila: Soziologia II (Ikasketa feministak eta generokoak doktorego programa)

Tesi-zuzendaria: Marta Luxan Serrano

Tesiaren laburpena:

Tesiaren helburua Hego Euskal Herriko testuinguruan, gay, lesbiana, bisexual, trans* eta bestelako sexualitate eta genero ez-arautuen bizipenak aztertzea izan da, herri-mugimenduen esparru soziala erreferentziatzat hartuz. Analisi situazionalaren metodologia erabiliz, ikerketak bi esparru nagusitan jarduten du: alde batetik, era guztietako herri-mugimenduetan (sindikatuak, gazte-mugimenduak, ekologistak eta abar) aritzen diren LGTB* pertsonen esperientzia aztertzen du, beren politizazio-prozesu eta ardatzetan murgilduz, sakoneko elkarrizketen bidez. Bestalde, tesia argitaratzeko unean aktibo zeuden LGTB* kolektibo eta ekimenak aztertzen ditu, uneko sexualitate eta genero-politiken argazki partziala lortzeko asmoz, horretarako atentzio berezia jarriz kale-mailako politikan aritzen diren taldeetan. Bi ildo horien azterketaren bidez identitatearen, esperientziaren eta egunerokoaren politizazioak beren testuinguru *mikro*, *meso* eta *makrosoziologikoetan* kokatzen ditu lanak. Horrela, sexualitatearen, generoaren eta bestelako politizazio-ardatzen arteko harremana eztabaidatzeko parada hartzen du tesiak, hala nola politika sexu-generikoen gakoak ikuspegi kritiko eta antikapitalistatik aztertzekoa.